ERREPORTAJEA EGUZKI GOSEA ASE NAHIAN • GEHIGARRIA ARNALDO OTEGIRI ELKARRIZKETA

KIROL ELKARRIZKETA PILAR ARRIOLA ETA IÑIGO ETXANIZ KORRIKALARIAK

# BARREN



# Eguzkiaren okupak Elgoibarko zelaietan

"EGUZKIAK DANENTZAKO URTETZEN DAU" (esaera zaharra)

MAKINA
ERREMINTAREN
INSTITUTUA

INFORMAZIOA
San Roke Auzoa, 1-Elgoibar Gipuzkoa
Tel.: 943 744 132 - Faxa 943 744 153
e.maila: amaia@fmh.es
web orria: www.fmh.es



Euskacli
AENOR
ER

2001-2002 I KASTU RTEA

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)
- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)
- Mekanizazioa

Ekainaren 5ean ateak zabalik, 19.00etan



Izena emateko epea:
Ekainaren I etik 12ra, biak barne

Gol-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

AENOR
ER

# 2001/2002 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

## GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta kautxogintza
co1 Idazkaritza (Ingelesa eta frantsesa)

## ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Mekanizazioa
(0' Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
o'Administraritza kudeaketa*

Au.-e#ratr-t;eula epea 2415247//r
eia.ira,<-61r reeX
(24kio Itratl-/ZA aztiutap-e/t 6/-a,

'Zertifikazioaren eremutik kanpo

Norberaren gaitasunen eta
nahien arabera
egokitutako ibilbideak

Behar diren baliabideekin

Bide eta ate guztiak zabaltzen
dituzten ikasketak

Eskola publikoa:
integratzailea eta anitza

**Ibargarai 1. • Bergara -**
**Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40**
**Bulego orduak 9:00etatik 1 3:O0etara**

gerrlyekdar tra41/fra7ez get.a aeitupre teijoltara eta
eriat;rtzat"iat'azia azairbeitai eftrava alikaga



## Barka nazatela erretzaile pasiboek

Tabakorik gabekoEguna den honetan, ohetik jaiki orduko, erretzeari uzteko hamaika gomendio eta arrazoi entzun izan ditut. Irratiaz, telebistaz... komunikabide guztiek eskaintzen dizkigute datu beltz eta ikaragarriak. Kaltegarria da oso osasunarentzat, hori lehendik ere bagenekigun baina honakoan lagun- hurkoari egin diezaiokegun kalteaz mintzo dira. Eta hau irakur dezaket: trafiko istripu, HIES, heroina, alkohola, hilketa eta suteen ondorioz hiltzen direnen kopurua baino handiagoa dela tabakoak eragiten dituen heriotzen zenbatekoa. Ikaratzekoa benetan. Baina horrelakoak entzuteko prest jaiki naiz ohetik. Banekien era honetako bonbardeo informatiboa izango nuela gaurkoan. Beste honetarako aldiz, ez nengoen prest. Telebista piztu eta 11 urteko neskatila baten begirada ilun eta tristea ikusi dut. Etiopiakoa da. Eta bere egoera tamalgarria da oso. 10 urte zituela ezkontzera behartu zuten, gurasoek konpondutako ezkontza, horrelakoetan ohi denez. Haurdun gelditu zen baina bere gorputzak, ume baten gorputzaz ari naiz, ez du horrelako egoera bati aurre egiteko behar duen heldutasuna. Ondorioz, erditzerakoan bere haurra galdu du eta gutxi balitz, bere gorputzak ere zorigaitzez ondorio txarrenak jasan behar izan ditu. Behar bada elbarri geldituko da. Senarraren familiak bere etxetik bota egin du, eta bere etxekoen artetik ere apartatua izan da. 11 urte besterik ez ditu eta seguruenik ez du egoera normalean haur bat mundura ekartzeak eragiten duen poztasuna sekula ezagutuko. Zigarro bat piztu dut. Barka nazatela nire inguruko erretzaile pasibo guztiek. Baina ahula naiz eta oraindik ez dut erretzeari uzteko behar den borondate eta gogoa nereganatu.

**Oiga Unzilla**

Cn 5'''' 0 0 N.



# Aukera bakarra

Igaro dira hauteskundeak eta Autonomi Erkidegoko euskal herritarrok egin dugu gure aukeraketa.

Neurri baten esanguratsuak izan dira hauteskunde hauek, hein handi batean alderdi espainolistek euren diskurtso "integratzailea" alde batera utzi eta Euskal Herriaz eta abertzaletasunaz duten benetako ikuspegia azaldu digutelako.

Ba al da alderik, Fraga, Martin Villa eta aurreragokoek beren garairik oparoenetan Euskal Herriari buruz esandakoen eta gaur egun Oreja eta Redondok esaten dituztenen artean? Euskaldunekiko beraien izaera demokratikoaz fidatu behar al gara?

Norberak erabaki dezala baina kontua da abertzaleok bat egiten ez badugu, Euskal Herriak, euskarak eta orokorrean, gure errealitate desberdinduak sekula ez duela bere bizi iraupena ziurtaturik edukiko.

Bat egitea nola burutu? Aurrebaldintzarik jarri gabe, ez label demokratikorik ez eta abertzaletasun labelik eskatu gabe. Euskal Herriaren historia hurbilean zehar, bestaldekoen jarrera okerrak aurpegiratzeko, denok, milaka aukera izango genituzke bestela-eta.

Zertarako? Euskal Herritarrok gure geroa erabaki dezagun. Ba al da hori baino ekintza demokratikoagorik?

**Unai Argarate**

Erreportmea ........................................6
InOtZ 1\40tZ ........................................10
gehigarria ........................................13
kiROlAk ........................................20
aGenda ........................................24

# Urruzunoren begi ezkutua



Uda datorrenez burua negu. Jaixak datozkit eta hortaz pentsatzen betizua bururatzen zait. "Zakina", gizaki, zaldi eta zezen gabaz inguratuko hauela aurten, omen dute, eta bitartean ze berri? Nafarroako zezentxoak datozela edo betizuak harat jolasean. Dena den,joan etorria, harat honantza, gorputzaren kontua da eta ez gu uste genuen bezala, adimenekoa. Horregatik, esan didatenez, aurtengo jaiak ez dira hori bakarrik izanen baizik eta "zakina"k esan duen bezala, benetako alajaiak. Beraz, eder hori, topo egiteko aukera baduzue, alajai, galde egizaiozue topatzerakoan: "Zaki" zer edo nor da "zakina"?

Joseba Esnaola



• Argazkikoa Juan Mugerza kaleko bizilagun batek domekan bere etxeko atarian aurkitutako zikinkeria da. Hori astebururo gertatzen dela ikusita BARRENen kexa jartzea erabaki du. "Ez dao eskubiderik astero-astero kanpotik etorritxako gaztiek lagatzen daben txarrikerixia lagatzeko. Bizilagunok atentziva deitxu izan diegu, eta munizipalek ere boteilak jasotzeko esaten diue, baina ez dabe kasorik eitxen. Euren herrixan ere holako narrazak al dia?".


ASTEKARIA
**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
1· 943 74 41 12
Publizitatea:
xr 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E•maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comibarren
AGGITARATZAILEA
Elgobarko Izarra

£1GOI8UK0 AAAAAA

LAGUMAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru KAZETARL4K kati Agirreazaldegi, Asier Orbea PUBLIMATEA Andoitz Agirregomazkorta MAIOETATZALEA Bea Ansola ALUNISTRI.2101 Amaia Rodrigez GEHEIG211. Jon Peli Uriguen. KOLABORATWLEAK Amaia lariz, Unai Argarate, Eguzidño Aranberri, lorea Perez de AMeniz, Jokin Martinez, Aitor Zabaleta, Leire Urkldi, Olga Unzilla, Montse Arregi, Juanito Gorosliza, Iker Maguregi, Jon Gurrutzaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urmzuno L.T.. Aztueko ESAL014 Gotzon GaTate INPRIIIATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.000 8.113 LEGE GORDIAILU4 88-1.038/9215SN 1139-1855

*Elsoibarka Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldtzkaria.*



1111² kutxa

1DANOBAT
nE 901.9.111.

GOITI
GRUPO DANORta




• Emakume bat Plaza Txikiko kolunpioen aurrean eserlekua gaizki ipinita dagoela-eta kexa hau esatera etorri zaigu: "Eserlekua kotxeak aparkatuta egoten diren lekura begira dago eta beti egoten da kotxeren bat aurre-aurrean. Eserlekuari buelta emateko proposamena egin nahi dut. Horrela umeak ikusiko genituzke eta baita erosoago egon ere".

2001-VI-1



Pedro Muguruza kaleko bizilagun batek duela gutxi autoentzat ipini duten norabide aidaketa dela-eta kexa hau azaldu nahi du: "Norabide aldaketarekin Eibarrerako autobus geltokia kendu digute. Orain "azkena" parean jarri dute. Lehen, ordea, zenbait pertsonek autobusa bartzen zuten Plazara joateko bazen ere eta orain, ezin dute horrelakorik egin. Gauza hauek kontu gehiagorekin aztertu behar lituzketela uste dut".

IPZ

Pasa den astean herritar batek katekista taidea txalotu nahi zuela eta etorri zen erredakziora. Guraso honek katekista taldearen lan eta antolaketa bikaina txalotu nahi ditu: "Jaunartze egunean, maiatzaren 13an, beraiek egindako lanagatik izan ez balitz dena ez zen horren ondo aterako eta".

Mutiko bat etorri zaigu BARRENera eta honako hau esan digu: "Gaur Elgoibar eskubaloiko kadete mutilen taldea txalotu nahi dut, tenporada amaitu ostean, txapeldun izatea lortu dutelako. Zorionak".


EKAINa 06, 19za

**o BENIDORM TERRA MITICA**
**H. 7 gau, pentsio osoan
2 egunetan parkera sarrera
31.030 ptaipertsonako

**TORREMOLINOS.**
7 gau 6 gauren prezioan
14 gau 12ren prezioan £11007741
***H. Pentsio osoan
auneko prezloa **4.290** pta/pertsonako

**r: MALLORCA**
*"H. 7 gau, pentsio osoan
frteera Bilbotik
**27.600** ptafpertsonako

**❑TENERIFE**
Aparthotel***
7 gau, logela eta gosaria
frteera Bilbotik
**30,400** ptalpertsonako

***CUBA, LA HABANA***
***H. 7 gau, logela bakarrik.
frteera Madriletik
**74.500** pta/pertsonako

V1AJES BIONAK
**31L31-10 EXPQESS**
**B1DAIA AGENTBAK BABESTUTAKO ATALA**
Faruen enparantza, 3• Tei: 943 74 39 12


Barrak, Birrak eta Barreak



# EGUZKI GOSE

**Termometroak 30 gradutik gora izan, dira aste honetan. Asko eta asko entzun ditgu bero forregi egin duela eta kejatzen. Beste batzuk, ordea, eguzki gosea ase nahian hondartzara egin dute eskapadatxoa. Baina autoa, trena edo autobusa hartu eta kostaldeko herriren batera joan beharrean herrian ere badago eguzkia hartzeko lekurik. Tootla, oulkiak, krema eta boinujantzia hartuta herriko zelaiak aprobetxatzen dituzte hainbat herritarrek eguzki galdaratan maiatzeko lehen izpiak aprobefxatuz beitzaran jartzeko. Emakumeak dira gehienak, adiniguthetakook, eta eguzkia hartzeko dituzten lekuak ere bat baino gehiago dira. San Rokeko partean, Artetxen eta San Migel aldera ere joaten omen dira zenbait. Gu ere, elkarrizketaren aitzakian, beltzaran jartzeko asmoz eguzkipean hizketan jardun gara hainbat emakumerekin, eguzkia hartzeko modu eta leku ezberdinei buruz.**



*Marisa, Amaia, Lupe eta Mari Cannennekin Mekanika ondoko ulainn izan ginen berbetan*



"Eguraldi eguzkitsuak jendez lepo bete ditu Euskal Herriko hondartzak", hori izan zen astearteko Euskaldunon Egunkarian irakurri genuen titularretako bat. Baina inguruko hondartzak ezezik, Elgoibarren hainbat zelai ere jendez gainezka topatu ditugu asteon. San Roke partera egin genuen ibilaldia eta herriko auzo honetan aukera asko topatu genituen eguzkia hartzeko.

## Non hartu eguzkia?

Kiroldegiko goiko partean bada terraza bat eta uda partean joaten omen da bertara jendea eguzkia hartzera. Duela gutxi ireki zuten terraza, baina jadanik batzuk joan dira denboraldiko lehen bisita egitera. Gora egin dugu gero, eta Mekanikako aldameneko zelaian emakume talde handi bat topatu dugu eguzkia hartzen. Badirudi San Roke auzoa dela eguzkitsuena, izan ere, Ermita inguruko zelaietan ere ikusi genituen beste batzuk eguzki izpi guztiak hartu nahian. Baina beste auzoak ere ez dira txiki geratzen, eta jakin dugu Artetxen, Urtia inguruan, eta noski, San Pedron eta San Lorentzon ere eguzkia jende askok hartzen duela. Bestalde, izango da herrian deskubri tu ez dugun beste "solariumik", izan ere, batzuk nahiago dute ezkutuan eguzkia hartu. Eta bada, etxetik mugitu gabe balkoian edo terrazan moreno jartzen denik.

Gure ibilaldian geldialdi bat egin eta Mekanika aldameneko zelaian Marisa, Amaia, Lupe eta Mari Carmenekin izan gara berbetan, eguzkia hartzen genuen



*Marijo*

## AZALAREN, BEGIEN ETA ILEAREN KOLOREAREN ARABERA EMAN BEHARREKO PROTEKZIOA.

Hemen taufa orientagarri bat, beti ere **kontutan hartuz adierazitakoo baino indize altuagoa erabiltzea ez dela inoren kalterako.**

| | **Hasierako egunetan eman beharreko protekzioa** | Gainontzeko egunetan eman beharreko protekzioa |
|---|---|---|
| Azal eta begi argiak, eta ile gorria | 30 | 25 |
| Azal eta begi argiak eta ile horia | **20** | 15 |
| Azal argi edo matea, begi nabarrak eta gaztain koloreko ilea | 12 | 10 |
| Azal matea, begi ilunak eta gaztain koloreko ilea | **8** | **6** |
| Azal, begi eta ile ilunak | 6 | **4** |

*Zenbakiok protekzio indizearen adierozle dira.



bitartean. Etxetik gertu egotea edo denbora tarte laburra izatea dira besteak beste ernakume hauek bertara joateko dauzkaten arrazoiak. Eguraldi ona eginez gero Aste Santuan hasi eta irailera arte zelaiko okupak bihurtzen dira eta inoiz 25 izatera ere heldu dira. Etxe artean dagoen iekua izan arren ez dute inork ikusiko dituen erreparorik. "Eskolakuak urtenda daoz, karreteratik ez da ikusten, eta kaminotik bakarrik ikusi leike piska bat". Gauza jakina da zelai horretan etxeak eta parke bat egiteko dagoen proiektua, eta hau izango

## Udalari Arregitorreko parke berria egitean eguzkia hartzeko zatitxo bat lagatzeko eskari egin nahi diete Mekanika ondoan egoten diren emakumeek

omen da Mekanikako zelaian edo "Benidonn Txikian" eguzkia hartzeko izango duten azken urtea. "Oin piszinak ingo ditxue, baina guretzat unuti xamar daoz. Pentsatzen gaoz ayuntamentura jutia eta parkian guretzat euzkixa hartzeko tokitxo bat lagatzeko eskatzia". Zelaiko okupak direla esan dugu, baina belarra zainduta ikusi dugu, eta nork mozten duen galdetu diegu. "Terreno pribaua da, baina ez digute inungo pegarik ipintzen hemen egoteko. Gainera, badao gizon bat, bere andria eguzkixa hartzera hona etortzen danez, urtero belarra moztiaz arduratzen dana".

Goragoko zelai batean Marijo ikusi dugu eguzkia hartzen *eta* irratia entzuten, eta berak kontatu digu hango berri. Hamar urtetik gora dira zelai horretara jendea eguzkia hartzera joaten dela. Marijo bera hondartzara ere joaten da, baina ez omen dago konparatzerik plaiakohondanzako"Hemen lasaitasuna dago, ez dago jenderik eta ume zaratarik inguruan". Jende asko biltzen da bertan, hamabi lagun inguru, eta larunbatetan gehiago. "Oin, maiatz inguruan hasi eta irailera arte egoten gera. Abuztuan henixan geratzen dan jendia etortzen da" Goizez zein arratsaldez joaten den jendea dagoela esan digu Marijok, eta eguzkia hartzeaz gain lagun artean berriketan, irakurtzen edo irratia entzuten pasatzen dute denbora. Eguzkiaren kalteak hainbesterakoak direla entzuten dugun honetan babesteko zer egiten duen galdetu diogu. "Prekauzivak bai baina 30eko protekziorik ez dot ibiltzen".



*an Roke auzoko lasaitasuna du gogoko eta bertako zelai batean topatu genuen eguzkia hartzen.*

## KONTUZ EGUZICIAREKIN



*Laster dator uda, eta gorputz,a zaintzen hasi da jendea. Hondartzara, piszinara edo edozein zelaitara joango gara eguzkia hartzera, baina izpiekin kontuz ibili behar da. Denbora luzez eguzkipean egonez gero, azala lehenago zahartzen da eta orbainak ateratzeko arriskua ere badago. Hori dela-eta eguzkia hartzerakoan kontutan izan behar diren hainbat gomendio emango dizkizuegu.*

- Eguzkia hartzen jarri baino minutu batzuk lehenago eman krema azal garbia eta lehorra dugunean. Azai guztiak babestu behar dira.

- Eguzkitan jartzen garenean hasieran ematen dugun kremaren protekzio indizea gero erabiliko dugunarena baino altuagoa izango da.

- Saiatu eguzkiak indar osoz jotzen duen orduak saihesten, eguerdiko 12:00etatik 6:00etara, hain zuzen ere (baita zerua lainotuta dagoen egunetan ere).

- Bi ordutik behin emango dugu krema, eta eguzkiak indar handiz jotzen duenean orduro.

Eguzkia hartzen hasi aurretik ez erabili koloniarik edo alkoholdun produkturik, eguzkiarekin erreakzionatzen *dute* eta azalean mantxak ateratzeko arriskua dago.

- Eguzkitan denbora luzez egon eta etxera joatean eguzkia hartu osteko krema (after sun) eman. Azala hidratatu eta baretu egingo du.



### Aste honetan termometroak 30°tik gora igo dira

## HARTZEN AL DUZU NEURRIRIK HORRELAKO BEROEN AURREAN?



**MONTSE CERREJON**
35 **urte, dendaria**

Erropa freskuaua jantzi, kerizpetan egon eta plaiara jun: Etxian euzkixak joten daban aldian persianak bajatzen ditxut eta euzki direktua ebitatzen dot.

**JOSE MARIA AGIRREGOMEZKORTA**
**70 urte, jubilatua**

Kanpora jun eta haizia hartzia, eta erropa freskuauak jaztia. Beruan beruakin lorik ezin einda ere ibili naiz, eta inoiz baino siesta gitxiao ein dot.





**MARIA JESUS ALBERDI**
**58 urte, etxekoandrea**

Etxeak asko berotu dira, eta aire girotua jarri ezean aguantatu beste en'ernediorik ez dago. Oso gaizki pasatzen dut eguraldi honekin, eta aldatzea gure esku balego, hori litzateke neurririk onena.

**ROBERTO MERINO**
**48 urte, garbitzailea**

Ez, eguraldi aldaketa hauek arraro samarrak dira baina beroa erraz jasaten dut. Goizeko seietan sartzen naiz lanera, eta ahalik eta bizkorren amaitzen dut, beraz, beroak ez nau hainbeste agobiatzen.





**MAIDER LIZUNDIA**
**24 urte, etxekoandrea**

Bentiladoriak "a tope" ipini, leihuak itxi eta persianak bajau. Umiak bero honek ez ditxu aguantatzen, eta erropa danak kenduta ibili bihar izaten da etxian.

**JOSE MARIA GARCIA**
**40** urte, propaganda banatzailea

Ez, kalean pasatzen dut egun guztia lanean, eta euria baino nahiago dut eguraldi hau. Hala ere, etxera joandakoan beti krema ematen dut azala ez lehortzeko.



**BOUTIQUE DEL PAN**

**Enpanadak** **Enbutidoak**
**Baserriko ogia** **Bolleria**

lan Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 943 74 33 92 /

**CIIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

ts' 943 82 01 09 g Faxa: 943 82 01 62
indalezio Ojanguren 2, behea **20600 EIBAR**

# noia ALDATU diren gauzak!



**1950.** urte inguruko erretratua da. Zubi ondoan posteekin ikusten den etxebizitza Txankakua jatetxea da. "Atxaorbea- Loiola" familiak zeukan jatetxea. Makina bat jende gogoratuko da oraindik ere Maria Loiolak prestatzen zituen jakiez. Enpresa gizonen artean jatetxe ospetsua zen Txankakuakoa, biajanteek- eta bertan gelditzeko ohitura zuten. Hilean behin egin ohi zen feriaren ondoren ere ikaragarrizko jendetza biltzen zen bertan.



**2001.** Txankakua jatetxea zegoen lekuan Eibarrera doan errepidea dago eta paretean Salbadorearen irudia ikus dezakegu. Lehen zegoen lekutik horra aldatuta dago irudia (goiko erretratuan Txankakua alboan ikusten den teilatua, Salbadoraren ermita da). Herrian jende askok zion fedea irudi honi.

asteko

# ERREZETA




## HARAGIZ BETETAKO PIPERRAK

### OSAGAIAK

Okela pikatua, kipula, patea, Pikilo piperrak, tomatea, oliba olioa, irina, arrautzak, nata eta gurina.

### PRESTAKETA

Kipula txikitu eta oliba oliotan zartagin batean piska bat frijitu ondoren, okela bertara bota eta hau ere frijitu. Gero tomate goilarakada batzuk nahastu, baita patea eta Pikilo piperrak txiki-txiki eginda ere. Besamel lodia egin eta aurrez prestatutako nahasteari gehitu masa bat eginez. Piperrak masa horrekin bete eta arrautza-irinetan pasatu. Bukaeran saltsa botako dugu gainetik.

Saltsa:

Ontzi batean gurin piska bat eta irin goilarakada batzuk berotzen jarri. Nata eta tomatea gehitu eta ur piska batekin dena ondo egosita piperrentzako saltsa egokia lortuko dugu.

**Hemendik**
JATETXEA

**P. Muguruza etorbidea, 20**
**Tel. 943 74 25 00**

## PIP0811 OZ zen **onartu** *11-11*

# EHren eta PSE-EEren aldeko botoak jaso zituen proposamenak

A-8 doan" Akordio Sozialaren eskariz, EHk aurkeztutako autopista doan izatearen aldeko mozioa eztabaidagai izan zen joan den osteguneko, maiatz aren 24ko plenoan. PSE-EE eta EHko zinegotziek aldeko botoa eman arren, mozioa ez zuten onartu, aurkako 10 boto izan baitziren.



EHren esanetan, 2003an kontsezioa amaitzean, doan izan behar luke Bilbotik Behobiara doan autopistak. Gainera, gure zonaldeko gidariak diskriminatuta gaudela esan zuten. Izan ere, "era honetako errepideak erabiltzearren probintziako beste hainbat lekutan,

***EH aklerdiaren esanetan 2003. urtetik aurrera Bilbo-Behobia autopistak doanekoa izan behar luke.***

Espainian eta Europan ez dute ordaintzen; guk, ordea, bai, eta hori ez da bidezkoa".

Jose Mari Oruesagastik EAJ-PNVren izenean hitz egin zuen, eta bere esanetan Udal plenoa ez da horrelako gaiak eztabaidatzeko Ieku egokia. "Errepideen gaia era globalean aztertu behar da, eta horretarako probintzia osoko bideen egoera biltzen duen ikerketa egin beharko litzateke. Batzar Orokorrek lan horretan dihardute".

PSE-EEk EHk aurkeztutako mozioa onartu zuen esanez, "peajea kentzeak herriko trafiko arazoak arinduko lituzke". PPko litigo Arkauzek aurkako botoa eman zuen. "Denok nahi genuke autopista doan izatea, baina A-1 errepidea ere ordaindu beharra dago".



## Santiago Oleagaren hilketaren aurka jende asko konUentratu zen Plaza Handian

Joan den ostegunean tiroz hil zuten Donostian, Matia Fundazioaren aldamenean, Santiago Oleaga, Diario Vasco egunkariko finantza zuzendaria. ETAk egindako hilketa salatuz eta lankide eta senideei elkartasuna adieraziz 15 minutuko isilunea egin zuten Plaza Handian ostegun iluntzean eta ostiralean, eguerdiko 12:00etan. Argazkian ikus daitekeen moduan, eta azken kontzentrazioetan bezala oraingoan ere jende asko bildu zen. Eguzkipean eta isilean egon ostean, 12:15eko kanpai hotsekin batera txaloka amaitu zen agerraldi isila. Osteguneko plenoan, PSE-EEko Ovidio Campellok hilketa salatzeko eskaria egin zuen. Baina ezohizko plenoko gaiak aurrez zehaztuta zeudenez, eta araudiak hala eskatuta, alkateak ez zion horretarako bimenik eman.

## 20 lagun inguru jardun dute "Arigera"k antolatutako trikitixa ikastaroan

"Arigera" proiektuak euskara euskaltegietatik kanpo praktikatzeko asmoz trikitixa ikastaroa jarri zuen martxan joan den martxoaren 6an. Arin-arin eta fandangoko pausoak ikasi dituzte Ibon Arriolaren laguntzaz, eta joan den astean amaitu zuten ikastaroa. Jendea pozik aritu dela esan digute, baina orain dantzan demostratuko dute ikasitakoa. Ea noiz ikusten ditugun trikiti doinuen erritmora saltoka.



## Barnetegietan euskara ikasteko eta Udako Euskal Unibertsitatera joateko dirulaguntiak emango ditu Udalak

Barnetegietan euskara ikastera joateko asmoa duten ikasleei eta langabetuei egonaldiaren gastuaren %40a ordaintzeko dirulaguntza emango die Udalak. Gastua 100.000 pezetatik gorakoa denean, aztertu egin beharko dute kasua, baina laguntza ezingo da heren batetik gorakoa izan. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatera joaten direnei, beka modura, matrikula osoa ordainduko diete (egonaldia ez). Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezakezue, edo goizez 943 74 43 66 telefonora deitu.

## Uztailaren 2ra arteko epea dago lurren eta ondasunen zergak ordainizeko

Landalurrei eta ondasun higiezinei (impuestos sobre bienes inmuebles) dagozkien 2001eko zergak ordaintzeko epea uztailaren 2ra artekoa izango da. Udaletxeko diru bilketa bulegoan edo herriko edozein banketxetan egirt beharko da ordainketa. Epea pasa eta ordaindu gabe dutenei %20 gehiago kobratuko zaie. Ordainketa errazteko hemendik aurrera ordainaginak helbideratzea gomendatzen dute.

## Nazioarteko Lanbide Heziketako arduradunak IMHn izan dira bisitan

Europar Batasuneko Nazioarteko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen I. Biltzarra eginda maiatzaren amaieran Donostian. IMHk bilkuran hartu du parte, eta nazioarteko adituak Euskal Herrian zirela aprobetxatuz, IMHra bisita egin zuten. Bideokonferentzia bidez prestakuntza birtuala nola egiten den ikusi ahal izan zuten. Hau da IMHren azken eskaintza, eta Heziketa Zikloetan erabiliko da datorren ikasturtetik aurrera.



## Debabarreneko taxistek bat egiteko asmoa azaldu dute zerbitzu hobea eskai'ntzeko

Taxien tarifetan eta urgentziazko zerbitzuetan dagoen desoreka ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiko garraio zuzenclaria, , Agitaxeko (taxien elkarteko) arduradunak eta bailarako alkateak elkartuta, taxisten arazoei irtenbideren bat ematea erabaki dute. Elgoibarko alkatearen esanetan, larrialdiren bat edukiz gero, eta Elgoibarren taxirik ez badago, beste herriren batetik bidaltzen dute taxia, baina prezioak ere gora egiten du". Debabarrenean 50etik gora taxi daude eta taxiak erabiltzeko premia zenbatekoa den eta zertarako erabiltzen dituzten aztertzea eskatu dute. Emaitzen arabera eskualdean taxien zerbitzua antolatuko lukete, elkarte moduan funtzionatuz. Honela, guztientzako araudi bat egingo lukete eta baita tarifak moldatu ere.



**Euskaldun zaharrok eta euskara ikasleak elkartzeko zuhia egitell dihardugu**

# Euskaldun zaharrak eta ouskara ikasleak eikarlaneanll

"Euskaldun berriok euskaltegitik irtendakoan ez dugu aukerarik izaten
gelan ikasitakoa praktikan jarri eta euskararekin harremanetan izateko."



# Euskara ikasieengana hurreratzeko prost al zaudo?

**deitu 043 74 16 26 telefenora tAmaial.**

**Helduen**
**euskalduntze-alfabetatzea**
**slignart7oko nrni.Irtn.**

# BARREN
ASTEKARIA

# elkarrizketa

2001 ko ekaina/V111 urtea/365 zkia



KANPAINA, HAUTESMAHAIAK, BOTOAK ETA BALORAZIOAK. HAUTESKUNDEEKIN LOTUTAKO HITZAK DIRA HAUEK. MAIATZAREN 13AN IZAN ZIREN LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK, ETA ALDERDIEN ZURRUNBILOA PASATU OSTEAN ORAINDIK ERE BADA ATENTZIOA DEITU DIGUN HAUTAGAIRIK. ATENTZIOA ZERGATIK? HERRITARRA DELAKO. ARNALDO OTEGI ELGOIBARTARRAZ ARI GARA. HAUTESKUNDEEN ONDORENGO "LASAITASUNEAN" BERAREKIN HIZKETALDITXO BAT EGITEKO PARADA HARTU DUGU.

"HAMASEI EDO HAMAZAZPI URTEREKIN HASI NINTZEN FRANKISMOAREN AURKA MILITATZEN"

# atzera begfla

## pausoz pauso



- Orain dela 42 urte jaio zen Elgoibarren
- **Elgoibarko Ikastolako bidean lehen pausoak eman zituztenhasierako ikasleen artean egon zen Arnaldo. Pilar ikastetxean aritu zen ondoren eta gero Eibarren La Sallen egin zituen orduko COUra arteko ikasketak.**
- **Zuzenbide ikasketak hasi zituen gero, baina bigarren ikasturtean karrera laga zuen, eta iparraldera ihes egin.**
- **Oso gazte hasi zen politikan. 16 edo 17 urte zituela talde antifrankistetan militatu zuen.**
- **1978an, polizia atzetik zuela-eta Euskal Herriko iparraldera ihes egin zuen eta bertan bizi izan zen 1987ra bitartean. Bertan, besteak beste, jatetxe batean aritu zen garbiketa lanetan.**
- **87an entregatua izan zen eta gero kartzelan 5 urte egin zituen. Kartzelan bukatu zituen ikasketak eta Filosofian lizentziatu zen.**
- **Herrigintzan aritua da, besteak beste, Senideak taldean eta Amnistiaren Aldeko Batzordean.**
- **Mahai Nazionala atxilotu zutenean, erakundeko parte izatera pasa zen.**

**Gaur egun politikari ezaguna da, EH alderdiko bozeramallea da, hain zuzen ere.**

- **Euskal Autonomia Erkidegoko azken hauteskundeetan lehendakaritzarako hautagaia izan da EH alderditik.**

# besteen ahotan



Pello Rubiok ezagutu zuenean 17 urte zituen Arnaldo Otegik, eta oraindik ere izaten du hizketaldirik berarekin. Guk Arnaldori buruz hitz batzuk esateko eskatu diogu. "Txiki eta Otaegi hil zituzten egunean ezagutu nuen Arnaldo, baita gaur egun bere bikote den Mari Juli Arregi ere. Orduan goardia zibila atzetik geneukala daukat gogoan".

Garai hartan mendian egiten zituzten bilerak. "Espainolistatzat hartzen gintuzten gu, eta ideologikoki ezberdin pentsatu arren, beti errespetoz entzun izan dit Arnaldok".

Orain ere edozeinekin hitz egiteko beti prest egoten den horietakoa omen da. "Nahiz eta beste era batera pentsatu, edo gauzak ezberdin planteatu, oso irekia da, eta erraza da hitz eginez berarengana iristea".

Mari Juliren izena eta lana era ozpimarratu nahi izan ditu Pellok. "Beti bere aldamenean izan du, hamabost urte zituela hasi baitziren elkarrekin. Iparraldean ere berarekin egon zen. Orain, denok Arnaldo Otegiren izena entzuten eta ezagutzen badugu ere, Mari Julirena aipatu beharrekoa dela uste dut". Bere erara Euskal Herrirako soluzio bila dabilen pertsona bat dela ere gaineratu digu Pello Rubiok.

## Farmazia - okindegia

| | EGU NEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 2 | Etxeberria (Errosaria kalean, | Etxeberria |
| 3 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 4 | Escala | Escala |
| Jr | Bidasolo | Bidasolo |
| 6 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 7 | Fernandez | Fernandez |
| 8 | Yudego | Yudego |

**FAMIAZIAK**

ESCAtA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZA13ALETA, Kalebarren, 9 Soraluze
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

3 igandea Fotero


# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

***KUTXAK • TRASLADOAK .KOROAK***



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01


# MAIATZA

## JAIOTAKOAH

**Nerea Sasiain Uranga**
Maiatzak 2

**Aaron Ferrandez Serantes**
Maiatzak 4

**Miriam Ferreiro Gil**
Maiatzak 13

**Nahia AragOn CordOn**
Maiatzak 15

**Oier Alberdi Hurtado**
Maiatzak 16

**Natalia Vilarchao Pe'rez**
Maiatzak 16

**Noemi Araujo Gdmez**
Maiatzak 17

## E/KONTZAK

**Ranuin Fernhdez Rodriguez**
**eta Maria Jose Mateos Rodriguez**
Apirilak 28

**Luis Fernando Toledano Martinez-Alcocer**
**eta Maria AsunciOn Martin Herrero**
Maiatzak **12**

**Alfredo Etxeberria Murua**
**eta Deñe Zabalo Zulaika**
Maiatzak 12

## IIMORNO.A1(

**Antonio Alvarez Ausin**
71 urte, apirilak 4

Jose **Agustin Astigarraga Mugerza**
60 urte, maiatzak 17

**Monica Alzpitaite Colina**
37 urte, maiatzak 17

**Ignacio Beloki Aizpitarte**
73 urte, maiatzak 25

# INTERESEKO TELEFONOAK

**OSASUNA**

Anbulatorioa . 943 03 26 10
Planning-a .... 943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 94374 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria . 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
Odol Ernadeak . 943 74 39 36

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak. . 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia. 943 74 08 98

**UDALA**

Euskara Zerbitzua.. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udala. 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
Udaletxea ......... 943 74 10 50
Udaltzaingoa . 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra .. 943 74 16 26
Kiroldegia......... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa . 943 74 30 88
Liburutegia ....... 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ......... 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea ......... 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

**ADINEKOEN ETXEAK**

San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia . 943 74 05 26
Eguneko Zentroa 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola . 943 74 21 41
HH1 (EPA) . 943 74 08 80
Herri Eskola . 943 74 08 79
I.M.H. ............. 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre. .... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka). 943 74 80 19
Ikastola .......... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea. 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN........... 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español. 943 74 10 82
Zazpiki irratia . 943 74 34 74
Egunkaria............. 943 30 02 28
Gara.................. 943 31 69 99

# informazioa

## Eusko Tren

TRENAK

**DONOSTIA-BILBO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Donostia~ 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Eibar **07.13**

**BILBO-DONOSTIA**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Bilbo 06:00
Eibar 06.13 07.13
Elgoibar 06.23 07.23

**DONOSTIA-B1130**
**Egunero**
DonostiaAMAAA
07.47 08.47 09.47 10.47 11.47 12.47
Elgoibar
09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02
Eibar
09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Donostia amtA
13.47 1447 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47
Elgoibar
15.02 16.02 17,02 18.02 19.02 20.02 21.02 22.02
Eibar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 2113 22.13

**B1130.DONOSTIA**
**Egunero**
Bilbo
08:00 09:00 10.00 11.00 12.00 13.00
Eibar
08.13 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Elgoibar
08.23 09.23 10.23 11.23 12.23 13.23 14.23
Bilbo
14.00 15.00 16.00 17.00 18.00 19.00 20.00
Eibar
15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13
Elgoibar
15.23 16.23 17.23 18.23 19.23 20.23 21.23

## EuskoTren

ALIFOBUSAK

ISTENDARO-ELGOIBAR
Astelehenetik **ostiral lanegunetara**
**Mendaro** 06.30 07.20 ...
Elgoibar 06.40 07.30 ...
`orcluerdiro, Menclaron 21.50ean azkena

**Larunbata, igandea eta jaiegunetan**
Mendaro 07.50 09.10 9.50 11.10 11.50
Elgoibar 08.00 09.20 10.00 11.20 12.00
*orduoro, Menclaron 21.50ean azkena

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
**Elgoibar** 06.25 07.25 07.55 08.25
**Mendaro** 06.35 07.40 08.10 08.40
`orcluerding, Elgoibarren 21.25ean azkena

**Larunbata, igandea eta jaiegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 09.25 10.25
**Mendaro** 07.40 08.35 09.40 10-35
'orcluoro, Elgoibarren 21.25ean azkena

AUTOBIJSAK

**AZPEITIA-BILBO**
**Astelehenetik ostiral lanegunetara**
Elgoibar 06.50 13.20 18.50
Eibar 07.00 13.30 19.00
**Larunbatak lanegunak**
Elgoibar 09.50 14.50 18.50
Eibar 10.00 15.00 19.00
**Igande eta jaiegunetan**
Elgoibar 9.50 19.50
Eibar 10.00 20.00

**BILBO-AZPEITIA**
